

URRE ZURIA

1834an gaude. Gerran gaudela uste dut, istilu asko daudelako azken hilabeteetan.

Maria dut izena eta dorletan lan egiten dut. Goizetan basora joaten gara egur bila, lehortzen jarri eta sua egiteko. Leintz-Gatzagan harri gatzatu bat dago lur azpian eta bertatik Olaun erreka pasatzen da gatz hori hartuz. Guk dorletan ur hori jaso eta bertatik gatza lortzen dugu. “Urre zuria” esaten diote batzuk, oso boteretsua delako janaria fresko mantentzeko. Gainera, kostaldera ere bidaltzen dugu, arrantzaleek arraina kontserbatu ahal izateko. Beraz, gure altxorra da gatza.

Nafarroako eta Gaztelako erregeak gure herria konkistatu nahi dute, “urre zuria” beraientzat nahi dutelako, gure altxorra lapurtu nahi digute, piraten moduan. Beraz, gure altxorra ahalik eta hobekien babesteko, harresia eraikitzea erabaki genuen herritarrok. Herria defenditzeko txandak egin ziren eta nire senarra, anaia eta aita han ibiltzen dira arkuekin etsaiak bidaltzen. Oso momentu larriak dira, beldurra pasatzen dugu, armatuta datozeelako etsaiak eta gu herri txikia garelako. Geroz eta gutxiago gaude. Jende asko hil dutelako, adibidez, lehengo egunean gure bizilaguna hil zuten, eskopeta baten tiroak bihotzean eman ondoren. Euri asko egiten zuen egun horretan, ekaitza, eta ez zen ezer ikusten. Bizilaguna herria defenditzera joan zenean, ez zuen etsaia ikusi eta bete-betean eman zion.

Orain dela bi hilabete, egoera beldurgarria bizitu genuen. Gaztelako soldadu batek harresia pasatzea lortu zuen eta Txomin harrapatu eta mehatxatu zuen. Txomin, gatza dorletatik trenera eramateaz arduratzen dena da. Tren horrek Gatzagatik kostaldera gatza garraiatzen du egunero, arrantzaleei emateko. Zer gertatu zen azalduko dizuet. Dorletan nengoen lanean eta Txomin gatz bila etorri zen, arratsaldeko lauretan. Arraroa iruditu zitzaidan, normalean, goizeko lehen orduan etortzen delako. Egundorretan, bi tren egongo zirela esan zidan eta gatza behar zuela bigarrenerako. Eta beraz, nik geneukan gatz guztia eman nion. Eta Txomin joan egin zen. Hala ere, ez nion guztiz sinetsi, urduri xamar zegoela iruditu zitzaidalako. Horregatik, disimuluan atzetik jarraitu nion eta orduan konturatu nintzen Txomin ez zihoala trenerantz, etxerako bidea hartu

zuela baizik. Barrura sartutakoan, pentsakor jarri nintzen, ez nekien zer egin, eta momentu horretan, Txominen etxetik soldadu bat ateratzen ikusi nuen gatz guztiarekin. Ezin nuen sinetsi. Traizionatuta sentitu nintzen. Eta ziztu bizian atea jo nuen, berarekin hitz egiteko asmoz. Txomin negarrez ari zen. Eta gertatutako guztia kontatu zidan. Beraz, lasai egoteko esan nion. Bataila bat irabazi zutela, baina ez gerra! Ez geniela utziko gure altxorra eramaten!

Gaur gauean dorlak zaintzea tokatzen zait. Euria ari du etengabe. Egunak daramagu horrela, euria goitik behera. Jendea ezin da etxetik atera eta lanera joatea kostatzen da. *Goiko kalean* putzu handiak daude. Olaun erreka eta Deba ibaiak adarrez beteta daude eta ur zikinak indar handia dauka.

Dorletan Maite eta ni gaude. Zarata handia egiten du euriak teilatuan jotzerakoan. Halako batean ura sartzen ikusi dut ate azpitik. Maiteri garrasi egin diot:

- Maite!! Erreka irten egin da!! Ur pila barruraino sartzen ari da!!

Dorlak babesten saiatu gara, ate azpian egurra jarriz eta ahal izan dugun guztia alturan jarriz. Baina ura oso gogor sartzen ari da, geroz eta gehiago. Azkenean, leihotik ihes egin behar izan dugu, eta Dorletako santutegira igo gara korrika gure burua salbatzeko eta handik gure dorlak, urak nola eramaten dituen ikusi dugu. Errudun sentitzen gara, Maite negarrez ari da, dardarka.

Egun batzuk pasatu dira ordutik, euria amaitu da, eguzkia atera eta horrekin batera herria lasai dago. Azken aldian ez dago istilurik. Uste dugu gerra bukatu dela, orain dorlarik ez dugunez, ez dugulako altxorrik eta beraz, etsaiei dagoeneko ez zaie gure herria interesatzen.

Urtebete beranduago, herritarrek elkarlanean, beste bi dorla handi eraikitzea lortu zuten, ondo babestuta, inori ezer esan gabe eta egiten zuten gatz guztia beraientzat gordez.